

Gure gaztak neolitos garaitikakoak ote?

Manuel Arroyo kantabriarra Kimika Zientzietan doktoratua da, gastronomiaz Donostian hitzaldi bat eman du aurtengo udaberrian eta bertan agertu zituen iritzi buruz elkarrizketa izan zuen Pilar Aranguren kazetariarekin, *El Diario Vasco* eguneroan maiatzaren 7an agertua. Izenburuan bertan zekarren: "*En el neolítico ya se hacía este queso*". Hori bai gure herkide tripazaien poza eta bestean harridura.

Galderantzunetako testuak, ordea, Pilarrek Manuelen hitzetan oinarriturik zioen gazta Neolitos aldirian ere egiten zela, baina jakitun honek, hori ziurtatuko duen ageririk ez badugu ere antzinatikakoa dela erantzun zion, bereziki Idiazabalgo gazta. Nire zalantza ordea, noiztik nora mugatzen da antzina? Ertaroa baino lehen?

Gure tripazaien ustea haratago ere joan daiteke. Zergatik ez, gogozko lekuan aldaparik ez baldin bada? Zeren, apologistek beti eramán gaituzte agerietan ziurtatzerik ezina den adarretatik; gure hizkuntza bera ere paradisuán

Adan eta Ebak beren ahoetan ez ote zuten ba erabili? Nork daki, bide horretatik, laster hasiko zaizkigute Adanek Ebari eman zioena ez zela sagarra, baizik gazta. Gazta ere Idiazabalgoa. Zergatik ez, nork jarri ditzake hori horrela ez den ageri ziurrik?

Lehen gizagaiek edo gizakiek lurraren gainean bi ala lau oin ipini izan zituztenik ere ez dakigunean, erraz bezain arin doa gaur egungoen irudimenezko gogo mugagabea eta amiltegirik gabe gainera, inon erortzeko arriskurik gabe. Baina, zentzu apur baten jabe direnei, hainbeste gabe eta gabe ukakor hori ez zaie fidagarri, ez horixe.

Zentzudunentzat txantxetakoa da, tripazaiantzat zientifikoa. Dena dela, gauza ziurra da Greenwicheko meridianoaren lerroa Plaentziatik hurbil xamar igarotzen dela; beraz, utz dezaiegun plaentziarrei erabagia, horrela behintzat, gutxienez ere, umorerik ez zaigu faltako.

J. San Martín